

«Eskoletan ez liokete inoiz arkatza erabiltzeari utzi beharko, arkatzak zure egiteko moduari zuzenean eragiten diolako»

Manu eta Jon Muniategiandikoetxearekin solasean



Laura Maioz Basterretxea
Arkitektoa eta euskara irakaslea

Bidaltze data: 2021-01-15
Onartze data: 2021-01-27

Manu eta Jon, Muniategiandikoetxea-Markiegi familiako anaia artista eta arkitektoa dira. Artearen eta arkitekturaren bideetan aspaldi zuten lehen harria ekarria, eta nork bere bidea eginagatik, maiz ikusi izan dute beren burua bi diziplinen arteko bidegurutzeetan. Halakoetan, anaiairen iritziak pisu handiagoa duela aitortu diote elkarri.

Aldiri: Noiz egiten dute bat arkitekturak eta arteak?

Jon Muniategiandikoetxea: Beti. Nahiz eta, nire ustez, artea aurretik doan eta arkitekturak atzetik jarraitzen dion. Baina kontzeptualki nahastu izan dira, abangoardiak batera joan izan direlako.

Manu Muniategiandikoetxea: Abangoardiak izan direnetan beti izan dira arkitektoak ere tartean, diseinatzaile, zinemagile, musikari, filosofo eta bestelako sortzaileekin batera. Hala ere, nire ustez, sortzeko askatasuna da arkitektura eta artea banatzen dituenak. Arkitekturak betebeharrak finko batzuk ditu; arteak, ordea, ez du eginkizun fisikorik. Arkitekturan atetik pasa behar duzu, ezin da sabaia jausi... eta horrek behartzen zaitu gauza batzuetara, nahiz eta pentsamenduak eta abangoardiek eragina izan. Artea edozer gauza da: Duchamp-ek egin zuena, probokazio bat, galdera bat... librea da.

A: Artista askok arkitektura dute langaitzat (Lara Almarcegui, Matta-Clark...). Arkitekturan, ordea, zenbateko pisua du arteak?

JM: Kolaborazio zuzenak ematen dira arkitekturari, non artistek fatxadak, espazio publikoak, testuak... esku hartzen duten. Abalos y Herreros arkitektoek, esaterako,

aspaldidanik egin izan dute lan artistekin. Puntualki egiten diren kolaborazioak izan ohi dira.

MM: Olafur Eliasson egiten ari dena, esaterako.

A: Koolhaas-en kasua izan liteke?

JM: Koolhaas-ek faktoria esperimental baten moduan egiten du lan. Kimikariak, artistak, soziologoak... ditu bere lantaldean. Horiek guztiak proiektu batean egiten dute lan.

MM: Arte-mailan ere antzeko metodologiak garatzen ari dira. Artista batek ekipo bat dauka atzean, eta proiektuetan idazleak, ingeniariak, teorikoak... aritzen dira batera.

JM: Nire ustez, Arkitektura Fakultatean erakutsi izan da arkitektoa dela «nagusia», arkitektoak egiten duela hiria edo eraikuntza, eta gainontzeko guztiak osagarriak direla. Distantzia hori ezarri izan da. Baina «arkitekto handia»ren figura lausotzen ari da, prozesuan parte hartzen dutenen arteko distantzia txikitzen, eta gero eta ohikoagoak dira kolaborazioak. Dena dela, arkitekto onek beti izan dute artearekin lotura. Le Corbusier bera margolaria zen, edota Alvar Aaltok bazuen bere alde artistikoa.

MM: Kontrako noranzkoan ere gertatzen da. Eames, Bertoia, Saarinen, Prouvé... arteak haiengandik eragin handia izan du.



A: Arkitektura egunerokoan dugu presente; artea, ordea, urrunago geratzen zaigu oro har. Horregatik, akaso, arkitektura kaskarra arte kaskarra baino ugariagoa dela iruditzen zaigu?

JM: Bien kasuan gauza bera gertatzen da.

MM: Ados nago.

JM: Kontua da arkitektura 50 urtez uzten duzula hirian. Horregatik arkitekturaren kasuan erantzukizun handia dago, eta hori ez da behar bezala irakasten. Zuk egiten duzunak urte asko iraungo du, eta hiriarengan zein jendearengan eragina izango du. Artea, ordea, espazio publikoan dagoen arren, batez ere museoetan eta galerietan dago, eta bertaratzen zarenean ikusten duzu.

A: Fakultateetan lantzen da bi diziplinen arteko zubi-lana?

JM: Ez.

MM: Ez al lirateke diziplina ezberdinen arteko zubiak izan behar, batetik bestera pasatzeko askatasun gehiago izateko? Adibidez, aurreko batean irratian entzun nuen hau asko gustatu zitzaidan: biologian, lehen, asko marrazten zuten. Ramon y Cajalek baditu, esaterako, neuronen marrazki zoragarri batzuk, Tabakaleran erakutsi zirenak. Bada, egun, Arte Ederretako fakultatera jo dute irakasle bila, Biologiako Fakultatean pintura ikasgai bat eman dezan, jabetu direlako biologoek marrazteko duten beharraz. Ikasle bat daukat [Manuk pinturako eskolak ematen ditu Zarautzen], medikuntza ikasitakoa, gogoratzen duena bere irakasle batek nola marrazten zituen bere klaseetan anatomiarekin lotutako gaiak (nerbioak, hezurak...) arbela handi batean, eta horren bidez ikasi zuela anatomia. Nik uste dut eskoletan ez lioketela inoiz arkatza erabiltzeari utzi beharko, arkatzak zure egiteko moduari zuzenean eragiten diolako.

JM: Egia da Arkitekturako eta Arte Ederretako fakultateek ez dutela harremanik. Segur asko XIX. mendeko ikasketaprogramatik ez gara apenas urrundu. Beste erreminta digital batzuk ditugu, baina, funtsean, edukiak ez dira aldatu. Duela 80 urte bezala, lehenengo marrazten eta eskua hartzen irakasten da, gero arlo tekniko batzuk, bitartean proiektuak lantzen dira... Pena da, zeren nahiz eta arkitekturaren ikasten denak aukera ugari eman, eta gauza konplexuak ordenatzeak irtenbide ugari izan (azken finean, hori baita arkitekturako karreraren irakasten dena), ez da inoiz artearekin lotzen, ez bestelako aterabiderik ematen. Arkitekturaren kritika ere ez da lantzen, esaterako. Nik uste dut gauza asko aldatu behar direla, baina ezin da instituzioak aldaketa egin arte zain geratu. Guk geure kabuz formatzeko aukera izan beharko genuke, esaterako, bateko eta besteko fakultateetako ikasgaietan matrikulatzeko aukera izanda. Arkitekturara filosofiako ikasleek etortzeko aukera izan lezakete, eta alderantziz. Guk, neurri batean, kupo tekniko bat izan beharko genuke, baina hortik aurrera malguagoa izan beharko luke sistemak.

MM: Nire alaba, esaterako [Italian izan da Erasmus programarekin], magisteritza ikasten ari den arren, Filologiako ikasgai batean matrikulatu da. Aukera hori oso ondo dago,

elkarren arteko sinergiak ahalbidetzen dituelako.

JM: Horma batzuk daude hori egiten uzten ez dutenak, baina horiek eraitsiko balira, oso baliagarria izango litzateke, esaterako, ingeniariak gure fakultatera etortzeko, eta, era berean, gu haienera joateko.

MM: Gauza bera antropologiarekin edo beste edozerekin. Malgutasun horrek onura asko izango litzuke.

JM: Horrelako aldaketak etorriko dira, eta erakundeek malgutasun hori erraztu beharko lukete. Baina norberaren lana izango da bere bidea diseinatzea.

A: Zein pisu dute bestelako diziplinek zuen lanetan?

JM: Gure jardunean, neurri txikiagoan ala handiagoan, beste diziplinak oso presente daude, proiektu bakoitzak inguruko diziplinekin «talka» egiten duelako. Orain, esaterako, areto bat diseinatzen ari gara, eta hor artea, zinema edota legeak oso presente daude, eta horretaz guztiaz ikasi beharra izan dugu. Zer da soinua? Nondik dator? Pixkanaka ikasten zoaz, baina gaiak oso konplexuak direnean zuk bakarrik ezin diozu aurre egin. Ikerketa batetik abiatzen dira proiektuak normalean.

A: Zein izan liteke, orduan, arkitektura sortzeko lantalde egoki bat?

JM: Edozein proiektuk lantalde baten beharra du, eta ez dute zertan teknikoak bakarrik izan. Pena da ez dagoela ondo baloratuta nahasketa hori.

A: Eraikin bat diseinatzekoan (eskola bat edo ospitale bat, esaterako), ez lukete psikologoek edota soziologoek parte hartu beharko?

JM: Bai. Arkitektook pentsatu beharko genuke gai askori buruz oso gutxi dakigula. Eta, pentsa zer den kartzela bat diseinatzea, edo aireportu bat. Barruan gertatzen denak indar handiagoa hartu beharko luke.

MM: Nik uste sortzaileen arteko lantaldeak sortzeak asko lagunduko ligukeela erantzunak emateko garaian. Nik, esaterako, inguruan ditudan idazle, arkitekto, diseinatzaile industrial lagunekin sortuko nuke familia moduko bat, talde interdiziplinar bat.

JM: Horrekin lotutako istorio bat etorri zait burura. Juan Herreros-i entzun nion bideo batean arkitektook gutxiago marraztu behar dugula. Berak zioen lehenengo eskema primario batzuk egin behar direla, konplexutasuna antolatzeke balio dutenak. Kontatzen zuen, eraikin baten diseinuaren hastapenetan zeudela, nola elkartu ziren ingeniari mordoak, ambientalista bat, biologo bat, arkitektoak... eta mahai gainean jarri zuela eskema horietako bat. Eta halako batean, batek aire egokitua kentzea proposatu zuen. Orduan, klimatizazioaz arduratzen zenak esan zuen horrek forjatu handiak eskatuko lukeela; beste batek, forjatu handiak zutabeak kentzea ahalbidetuko lukeela... bat-batean, eskema batetik abiatuta eraikina forma hartzen hasi zen.

A: Hasiera-hasieratik hartu zituzten kontuan diziplina guztietako beharrak.

JM: Bai, eta horrek autoretza banatu egiten du, eta, aldi berean, aurrekontuak hasieratik kontrol gehiago izatea ahalbidetzen du. Hori unibertsitatean ere irakatsi beharko litzateke.

===